

Hasi da txotx garaia

Sagardoa, Euskal Herrian hain preziatua den edaria, nola egiten den, noiztik egiten den eta non dasta daitekeen jakiteko webguneak daude

Iritsi da upelak ireki eta sagardoa probatzeko garaia!!! Joan den astean hasi zuten ofizialki sagardo garaia. Bi hilabetez sagarrarekin egindako zukua upeletan hartitzen eduki ostean, dastatzeko garaia heldu da.

Zer, baina oraindik ez al dakizu nola egiten den sagardoa? Ez larritu, Interneten badira eta sagardoaren historiaz eta lanketaz mintzo diren hainbat webgune.

Erratzuko eskolako ikasleek, esaterako, www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/erra_erreport.htm helbidean, pausoz pauso eta irudiz irudi azaltzen dute zein den sagardoa egiteko prozesua. Ikasleen azalpenak, gainera, eurek egindako marrazkiekin apaindu dituzte.

www.sagardotegiak.com/eu/asociacion.htm Gipuzkoako Sagardo Naturalaren elkarteko webgunean ere sagardoa egiteko jarraitu beharreko pausoen berri ematen da, orrialdean agertzen den upelaren gainean klikatuz gero. Web orriko sagardo botilak, berriz, sagardoaren jatorriari buruzko sekretuak ezkutatzaren ditu.

Sagardoa egiteko prozesuaz gain, sagardoaren gaineko nahi beste informazio jasotzen da Argia aldizkariak sagardoari

eskainitako webgune berezian: www.argia.com/sagardoa. Sagardoaren historia, Euskal Herrian eta munduan izan duen hedadura eta garrantzia, sagardogileen gida, sagardoa egiteko prozesua eta beharrezko gaiak, gaitzak, arazoak eta beste jakiteko oso gune osoa da. Sagarrari eta sagardoari buruzko datu interesgarriak jasotzen dira webgunean.

Atariak, gainera, atal berriak ditu. Garai batean eguneroko edaria zela azaltzen dute *Eguneroko edaria* atalean. Gipuzkoaz gain, Euskal Herriko gainerako probintzietan ere edari preziatuak duen garrantziaz mintzo dira *Sagardoa Euskal Herrian* atalean. *Igartubeiti museoa* da webguneke beste atal berri bat. Hor Ezkio-Itsasoko XVI. mendeko baserriari eta museoari buruzko xehetasunak kontatzen dira.

Argia-ko webgunea osatzeko, Hernaniko Jon Garmendiaren laguntza izan dutela aipatzen dute atarian. Jon Garmendiak berak ere badu sagardoaren inguruko ataria: www.sagardoa.com. Sagar-

doaren historiari eta jatorriari buruzko informazioaz gain, sagardotegietako gida jasotzen da.

Sagardoak Euskal Herriko bizi-moduan izan duen garrantzia ere erakusten du atarian. Leku izen eta abizen ugarik darama sagar izena. Aspaldiko kontuak dira, gainera. Orrian aipatzen denez, dokumentaturik dagoen lehen toponimoa *sagarro* hitza da, eta 1291n Nafarroan agertutako dokumentu batean agertzen da. Sagardoaren inguruko lehen idatziak eta *sagar* hitzetik eratorritako leku izenak aipatzen dira bere webgunean.

A m a i t z e k o, www.sagardun.com ataria aipatu behar dugu. Euskal Herriko sagar eta sagardo munduko elkarte guztien lehenengo elkar-gunea izan nahi duela diote sortzaileek. Hala, sagardoaren inguruan sortzen diren albiste eta ekitaldi guztiak jasotzen dira webgune horretan.

